

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2009/14/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, gordailuak bermatzeko sistemari buruzko 94/19/EE Zuzentaraua aldatzen duena, estaldura-mailari eta ordainketen epeari dagokionez.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2009/14/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2009, por la que se modifica la Directiva 94/19/CE relativa a los sistemas de garantía de depósitos, en lo que respecta al nivel de cobertura y al plazo de pago*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 68 de 13/03/2009*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2009/14/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena

2009ko martxoaren 11koa,

gordailuak bermatzeko sistemari buruzko 94/19/EE Zuzentaraua aldatzen duena, estaldura-mailari eta ordainketen epeari dagokionez

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzen duen Tratataua, eta, bereziki, haren 47. artikulua 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Banku Zentralaren irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikulua araututako prozedura bete dute[2],

eta alderdi hauek kontuan hartu ondoren:

(1) 2008ko urriaren 7an Kontseiluak aho batez erabaki zuen finantza-sektorearen konfiantza eta funtzionamendu egokia berrezartzea lehentasunezko egitekoa zela. Aurreztaile partikularren gordailuak babesteko behar adina neurri hartzeko konpromisoa azaldu zuen, eta Batzordeak presazko izaerarekin gordailuak bermatzeko sistemak bateratzea sustatuko duen proposamen egoki bat aurkezteko duen asmoarekin oso pozik zegoela adierazi zuen.

(2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/19/EE Zuzentaruak gordailugileentzako oinarrizko estaldura aurreikusten du. Hala ere, gaur egun bizi dugun finantza-nahasmenak beharrezko egiten du estaldura handitzea.

(3) 94/19/EE Zuzentaruak agintzen duenari jarraituz, indarrean dagoen gutxieneko estaldura 20.000 eurokoa da. Hala ere, estatu kideek estaldura handiagoa ezartzeko eskumena dute. Erkidegoko gordailu askori dagokienez, ordea, hori ez da egokia. Gordailugileen konfiantzari eusteko eta merkatu finantzarioetan egonkortasun handiagoa lortzeko, egokia da gutxieneko estaldura 50.000 eurotara igotzea. Gehienez ere 2010eko abenduaren 31n, gordailugile bakoitzaren gordailuen estaldura orokorrak 100.000 eurokoa izan behar du. Hala ere, Batzordeak egindako inpaktu-txosten batek ondorioztatzen badu kontsumitzaileen babesa eta Erkidegoko egonkortasun finantzarioa bermatzeko eta estatu kideen arteko lehiari desitxuratzetik ez gertatzeko, hazkunde eta bateratze hori ez direla estatu kide guztientzat egokiak eta finantzarioki bideragarriak, ez da igoerarik izango. Aipatutako txosten hori 2009ko abenduaren 31a baino lehen aurkeztu behar zaie Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Inpaktu-txosten horrek hazkunde eta bateratze hori ez direla egokiak ondorioztatuz gero, Batzordeak dagozkion proposamenak aurkeztuko dizkie Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

(4) Gordailugile guztiei estaldura-maila bera aplikatu behar zaie, estatu kideko moneta euroa izan edo ez. Euroguneko kide ez diren estatu kideek konbertsioaren emaitzak biribil ditzakete baina ezingo dute arriskuan jarri gordailugileei dagokien babesa.

(5) Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztu beharreko txosten batek kontuan hartuko ditu gaiarekin zerikusia duten alderdi guztiak, hala nola, elkarrekiko konpentsazioak eta errekonbentzioak, sistema horiei egindako ekarpenen garrantzia, produktuen eta estalitako gordailugileen irismena, gordailuak bermatzeko sistemen arteko mugaz haraindikiko lankidetzak eta, gordailuak bermatzeko sistemen eta gordailugileei beren gordailuak itzultzeko ordezko baliabideen arteko loturak, adibidez larrialdietarako ordainketetarako mekanismoak. Hori lortzeko, estatu kideek beharrezko den informazio guztia bildu behar dute, eta Batzordeari helarazi behar diote hark hala eskatzen duenean.

(6) Estatu kide batzuk gordailuak bermatzeko sistemak ezarri dituzte 94/19/EE Zuzentaruaren xedatutakoari jarraiki. Zuzentaru horrek epe luzerako gordailu-mota batzuentzat erabateko estaldura ezartzen du, esate baterako pentsio-eskubidearentzat. Ezinbestekoa da beren gordailuak sistema horretan egiten dituztenen eskubideak eta itxaropenak errespetatzea.

(7) Estatu kide batzuk gordailuak bermatzeko sistemak ezarri dituzte edo horiek ezartzeko asmoa dute, 94/19/EE Zuzentaruaren xedatutakoari jarraiki. Zuzentaru horrek aldi baterako handitutako kontuko saldo zehaztetarako erabateko estaldura xedatzen du. Batzordeak, gehienez ere 2009ko abenduaren 31n, erabaki beharko du egokia edo den aldi baterako handitutako kontuko saldo zehazten erabateko estaldurari eustea edo estaldura hori aplikatzea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(8) Zuzentarau honek ez du eraginik izango kreditu-erakundea babestuko duten eta, bereziki, haren likidezia eta kaudimena bermatuko duten sistemen funtzionamenduan, gordailugileen gordailuak bermatzeko sistemek edo estatu kideek ezarri eta ofizialki aitortu ez dituzten gordailugileen borondatezko konpentsazio-sistemek adinako babesa eskainiz.

(9) Estatu kideen egitekoa da, gordailuak bermatzeko sistemek haiei dagozkien betebeharrak buruzko akordioak lor ditzaten edo dagoeneko indarrean dauden akordioak hobe ditzaten sustatzea.

(10) Gaur egun aurreikusten den hiru hilabeteko ordainketa-epaia, bederatzi hilabeteraino luza daitekeena, ez da egokia gordailugileen konfiantzari eusteko, eta ez ditu haien beharrak asetzen. Beraz, egokia da epe hori 20 egun baliodunetara murriztea. Epe hori ohiz kanpoko egoeretan soilik luzatu ahal izango da, eta agintari eskudunek emango dute horretarako baimena. Zuzentarau hau indarrean sartu eta handik bi urtera, Batzordeak ordainketa-erakundeak ezin izan dituela gordailu mugaeguneratuak eta galdagarriak itzuli. Ebaluazio hori estatu kideen prozedura judicial eta administratiboen menpe egongo da.

(11) Bestalde, ordainketa-prozesua agintari eskudunek hala erabakita aktibatzen den kasuetan, egokia da gaur egun aurreikusita dagoen 21 eguneko erabaki-epaia bost egun baliodunetara gutxitzea, modu horretara ordainketa ahal bezain azkarren egin ahal izango baita. Hala ere, agintari eskudunek alde aurretik egiaztatu behar dute kreditu-erakundeak ezin izan dituela gordailu mugaeguneratuak eta galdagarriak itzuli. Ebaluazio hori estatu kideen prozedura judicial eta administratiboen menpe egongo da.

(12) Gordailuak ez daudela eskuragarri esango dugu esku hartzeko neurriek edo berrantolatzeko neurriek fruiturik eman ez badute. Egoera horrek, ordea, ez du galarazi behar agintari eskudunek, ordainketa-eparen baitan, berregituratzeko ahalegin berriak egitea.

(13) Estatu kideek banku-zerbitzuak irauarazteaz eta bankuek likidezia izateaz arduratu behar dute, bereziki nahasmendu finantzarioa nagusi den garaietan. Hori lortzeko, estatu kideei eskatzen zaie, ahalik eta azkarren, gordailugileak hala eskatzen duenean, larraldietarako ordainketak bermatzeko neurriak har ditzatela, eta gehienez ere, ordainketa horiek eskaera egiten den egunetik hiru egunetara egin daitezela. Gaur egun hiru hilabetekoa den ordainketa-epaia murrizteak gordailugileen konfiantzan eta finantza-merkatuen funtzionamendu egokian eragin positiboa izango duenez, estatu kideek eta gordailuak bermatzeko sistemek ordainketa-epa hori ahalik eta laburren izatea lortu behar dute.

(14) 94/19/EE Zuzentarauak agintzen duenari jarraituz, estatu kideek estaldura ehuneko jakin batera muga dezakete. Aukera hori kaltegarria da gordailugileen konfiantzarako eta, horrenbestez, bertan behera utzi behar da.

(15) 999/2001/EE Erregelamendua aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu behar dira. Azken erabaki horrek Batzordeari esleituriko egikaritze-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu [4].

(16) Egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea, Batzordeak berak argitara ematen duen kontsumorako prezio bateratuen indizeko aldaketetan oinarrituta, estaldura-maila Europar Batasunaren inflazio-tasara egoki dezan. Neurri hau irismen orokorrekoa denez, eta bere helburua 94/19/EE Zuzentaruaren funtsezkoa ez den elementu bat aldatzea denez, aipatutako neurri hori 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan xedatutako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartu behar da.

(17) Kontuan hartuta estatu kideek, dituzten antolamendu juridikoetako arau desberdin guztiak tarteko, ezin dutela nahikoa den eran lortu erregelamendu honen helburua, hau da, estaldura-mailak eta ordainketa-epaiek bateratzea, eta, beraz, hobeto lor daitekeela erkidego-mailan, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, helburu horiek betetzeko behar den arauketa egitera mugatzen da zuzentarau hau.

(18) Beraz, 94/19/EE Zuzentaruak aldatu behar da, hori guztia kontuan hartuz.

(19) Legegintza hobetzeko erakunde arteko Akordioa [5] 34. puntuak adierazitakoa betetzeko, bultzada bat eman behar zaie estatu kideei beren koadroak osa ditzaten, beren interesen eta Europar Batasunaren interesen alde, modu horretara, ahal den neurrian, transposizio-neurrien eta zuzentarau honen arteko korrelazioa isla dadin.

ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

94/19/EE Zuzentararen aldaketak

94/19/EE Zuzentaria honela aldatuko da:

1) 1. artikuluko 3. paragrafoa i) tartekian testu hau jarriko da, bigarren lerroaren lekuan:

"Agintari eskudunek erabaki hori ahalik eta azkarren hartuko dute. Gehienez ere, kreditu-erakundeak ez duela gordailu mugaeguneratuak eta galdagarriak itzultzea lortu lehen aldiz frogatzen duenetik, hurrengo bost egun baliodunetan zehar."

2) 4. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

a) 5. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

"1. paragrafoa 4.era aipatzen diren kasuetan, estatu kideak arduratuko dira gordailuak bermatzeko sistemak beren artean lankidetzan jarduteaz."

b) Paragrafo hau gehituko da:

"6. Batzordeak gutxienez bi urtez behin aztertuko du artikuluko honen funtzionamendua eta beharrezko iritzi gero, aldaketak proposatuko ditu. "

3) 7. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

a) 1. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

"1. Estatu kideek, gordailuak eskuragarri ez dauden kasuetan, gordailugile bakoitzak egindako gordailuen bermea gutxienez 50.000 eurokoa izango dela bermatuko dute.

1 bis. Gordailuak eskuragarri ez dauden kasuetan, gehienez ere 2010eko abenduaren 31n, Estatu kideek gordailugile bakoitzak egindako gordailuen bermea gutxienez 100.000 eurokoa izango dela bermatuko dute.

12. artikuluan aipatzen den txostenean Batzordeak ondorioztatzen badu kontsumitzaileen babesa eta Erkidegoko egonkortasun finantzarioa bermatzeko, eta estatu kideen arteko lehia desitxuratzetik ez gertatzeko, hazkunde eta bateratze hori ez direla estatu kide guztientzat egokiak eta finantziarioki bideragarriak, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari 1 bis paragrafoa aldatzeko proposamena egingo dio.

1 ter. Euroguneko kide ez diren estatu kideek bermatu behar dute 1. eta 1. bis paragrafoetan eurotan aipatzen diren kopuruak beren nazioetako monetetara konbertitzen dituztenean, gordailugileei ordaintzen zaien kopurua Zuzentari honetan zehaztutakoaren pareko izango dela".

b) 3. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

"3. 1 bis paragrafoaz gain, betetzekoak dira 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen, batez ere sozialtzat hartzen zirelako, gordailu jakin batzuei erabateko estaldura emateko xedapenak".

c) 4. paragrafoa kenduko da.

b) Paragrafo hau gehituko da:

"7. Batzordeak, Europar Batasuneko inflazio-tasaren arabera 1. eta 1. bis paragrafoetan aipatzen diren kopuruak egokitu ahal izango ditu, Batzordeak berak argitara ematen duen kontsumorako prezio bateratuen indizeko aldaketetan oinarrituta.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete), 7. bis artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira".

4) Ondoko artikulua gehituko da:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«7 bis artikulua

1. Batzordeak, haren 2004/10/EE Erabakiari jarraiki [*****] sortutako Europako Banku Batzordearen laguntza izango du.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, Kontseiluak 1999ko ekainaren 28an hartutako 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenak baliatzeko prozedurak arautzen dituzten aldetik, eta horiez gain, 8. artikuluan xedatutakoa beteko da.

5) 9. artikuluan, testu hau jarriko da, 1. paragrafoaren lekuan:

"1. Estatu kideen egitekoa izango da kreditu-erakundeek beren gordailugile errealei eta gordailugile izan daitezkeenei informazioa eskaintzea erakundea eta sukurtsala Erkidegoko zein berme-sistemaren baitakoak diren bereizteko, eta 3. artikuluko 1. paragrafoko bigarren idatz-zatiko edo 3. artikuluko 4. paragrafoko xedapenei jarraiki ezarritako bestelako edozein neurri buruzko informazio guztia eskaintzea. Gordailugileei gordailuak bermatzeko sistemaren ezarpenei buruzko informazioa, aplikagarria den bestelako edozein neurri buruzkoa eta gordailuak bermatzeko sistemak eskaintzen duen estaldurari buruzko informazioa emango zaie. 7. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki, gordailuak bermatzeko sistema batek bermatzen ez dituen gordailuei dagokienez, kreditu-erakundeak egoera horren berri emango die gordailugileei. Informazio guztia erraz ulertzeko moduan aurkeztuko da.

Aldez aurretik eskatuz gero, kalte-ordainak jasotzeko baldintzei eta horretarako bete beharreko formalitateei buruzko informazioa eskainiko zaie gordailugileei".

6) 10. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

a) 1. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

"Gordailuak bermatzeko sistemek behar bezala egiaztatutako erreklamazioei aurre egiteko baldintzak bete behar dituzte, agintari eskudunek 1. artikuluko 3. paragrafoko i) tartekian aipatzen den erabakia hartzen dutenetik 20 egun baliodun amaitzean itzuli beharreko gordailuei dagokienez, eta agintari judizialek 1. artikuluko 3. paragrafoko ii) tartekiari jarraiki hartutako erabakiei dagokienez. Epe horretan zehar gordailugileei eta gordailuei buruzko informazio zehatza bildu eta zabalduko da, kexak egiaztatzeko ezinbestekoa dena.

Erabat bereziak diren egoeretan gordailuak bermatzen dituen sistema batek epea luzatzeko eska diezaieke agintari eskudunei. Luzapen hori hamar egun baliodunekoa izango da gehienez ere.

Gehienez ere 2011ko martxoaren 16an Batzordeak ordainketetarako prozeduren eraginkortasunari eta epeei buruzko txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Bertan, epea hamar egun baliodunetara gutxitzearen egokitasuna aztertuko da.

Estatu kideek bermatuko dute gordailuen bermerako sistemek funtzionamendu-probak egingo dituztela aldizka, eta agintari eskudunek kreditu-erakunderen batean gordailuak bermatzeko sistemen esku-hartzea eragin dezaketen arazoak aurkituz gero, egoeraren berri izango dutela.

b) 2. paragrafoa kenduko da.

7) 12. artikulua ordez, testu hau jarriko da:

12. artikulua

1. Gehienez ere 2009ko abenduaren 31n, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txosten horretan gai hauek landuko dira:

a) Gordailuak bermatzeko sistemaren finantzaketa-mekanismoen bateratzea; gordailuen ondorioz eman beharreko kalte-ordainen eskuragarritasunari eta lehiakortasun zintzoari eta bateratzearen ondorio diren onurei eta kostuei dagokienez, mugaz haraindiko krisiren bat gertatuz gero, sortuko litzatekeen bateratze falta kontuan hartzen duena.

b) Aldi baterako handitutako kontuetako saldoari estaldura eskaintzearen onurak eta eskaintza horien modalitateak.

c) Arriskueta oinarritutako ekarpenak zehazteko egitasmoen ereduak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

d) Gordailuak bermatzeko erkidegoko sistema bat ezartzeak ekarriko lituzkeen onurak eta kostuak.

e) Konpentsazio-araudien ondorioak, sistemaren eraginkortasuna, sistemak izan ditzakeen desitxuratzeak, eta mugaz haraindiko kitapenak kontuan hartzen dituztenak. Konpentsazio-araudi horiek aplikatzen dira gordailugile baten kreditua bere zorrekin orekatuta dagonenean.

f) Estalitako produktuen eta gordailugileen irismena bateratzea. Gai hori lantzean kontuan izango dira enpresa txikien eta ertainen beharrianak eta tokian tokiko agintarien beharrak.

g) Gordailuak bermatzeko sistemen eta gordailugileei ordaintzeko ordezeko baliabideen arteko loturak, hala nola larrialdietarako ordainketen mekanismoak.

Beharrezkoa bada, Batzordeak zuzentarau hau aldatzeko proposamen egokiak aurkeztuko ditu.

2. Estatu kideek gordailuaren bermearen irismena edo maila aldatzeko asmoa badute, Batzordeari eta Europako Banku Batzordeari jakinaraziko diote. Horrez gain, beste estatu kide batzuekin lankidetzan aritzearen ondorioz sor daitezkeen oztopoak ere jakinaraziko dizkiete".

8) III. eranskina kendu da.

2. artikulua

Transposizioa

1. Estatu kideek zuzentarau honetan xedatutakoa betetzeko lege-, arau- eta administrazio-ezarpenak indarrean jarriko dituzte, gehienez ere 2009ko ekainaren 30ean.

1. paragrafoak araututakoa betetzekoa izango bada ere, estatu kideek, gehienez ere 2010eko abenduaren 31n, zuzentarau honek aldatutako 94/19/EE Zuzentarauaren 1. artikuluko 3. paragrafoko i) tartekiko 2. lerrokadan, 7. artikuluko 1 bis eta 3. paragrafoetan eta 10. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoak betetzeko beharrezkoak diren lege-, arau- eta administrazio-ezarpenak indarrean jarriko dituzte, gehienez ere 2010eko abenduaren 31n.

Estatu kideek xedapen horiek ematen dituztenean, zuzentarau honi egin beharko diote erreferentzia, edo, hala ez bada, beren argitalpen ofizialean egingo dute erreferentzia hori. Estatu kideek erabakiko dute nola egingo den erreferentzia hori.

2. Estatu kideek batzordeari jakinaraziko diote zer-nolakoa izango den barne-zuzenbidea oinarrian arautzeko idatzitako testua. Xedapen horiek zuzentarau honek arautzen duen esparruan hartuko dira.

3. artikulua

Indarrean jartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hiru egunetara jarriko da indarrean zuzentarau hau.

4. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2009ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean,

presidentea

H.-G. Pöttering

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Kontseiluaren izenean,

presidentea

A. Vondra

[1] C 314 EO, 2008.12.9koa, 1. or.

[2] Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko abenduaren 18koa (oraindik Aldizkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakiak, 2009ko otsailaren 26koa eta 2009ko martxoaren 5koa.

[3] L 135 EO, 1994.5.31koa, 5. or.

[4] L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

[5] C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

[*****] L 3 EO, 2004.1.7koa, 36. or.

[] L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.